

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

136/2018 Foru Agindua, maiatzaren 8koa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Naiara Lazpita Marcos Trapagaraneko Udaleko idazkariari eginkizunak metatu eta Añanako Udaleko idazkaritzakoak ere betetzeko

2018ko apirilaren 20eko foru agindu baten bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak Naiara Lazpita Marcos izendatu zuen, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioa eta Aiarako Udaleko idazkaritza lanpostuaren titularra, Trapagaraneko Udaleko idazkaritza lanpostuan jarduteko (sarrera kategoria), zerbitzu eginkizunetan eta ondorioak apirilaren 26tik aurrera dituela.

Hortaz, beharrezkoa izanik Aiarako Udaleko idazkaritza lanpostua betetzea, udal horrek iragarkia argitaratu du ALHAOren 2018ko 50. zenbakian, maiatzaren 2an, gaikuntza nazionaleko edozein funtzionariook eskatu ahal izan dezan lanpostu horretan jardutea martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 48.etik 51.era arteko artikuluetan aurreikusten dituen moduetako edozeinetan.

Hala ere, Aiarako Udalak Foru Aldundiari eskatu dio, gaikuntza nazionaleko funtzionario baten izendapena egiten ez den bitartean, aipatu den funtzionarioa izenda dezala, Naiara Lazpita Marcos alegia, eginkizunak metaturik Aiarako Udaleko idazkaritza lanpostuan ere jarduteko.

Helburu horrekin, Trapagaraneko Udalaren idazkia jaso dugu, bai eta bertako idazkariarena ere, eta biek adierazten dute ados daudela eskatu den metaketa bidezko izendapenarekin.

Oraingo honetan, betetzen dira eginkizunak metatzea erabaki ahal izateko legez ezarritako betebeharrak, jaso baita Aiarako Udalaren berariazko eskaera eta baimen eskaeraren xede den funtzionarioaren adostasuna, bai eta aipatutako funtzionarioak gaur egun lan egiten duen udalaren adostasuna ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskatu den metaketa baimentzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, uztailearen 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian zehazten den bezalaxe.

Azaldutako guztiarengatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea Naiara Lazpita Marcos andreari, zeinak gaur egun Trapagaraneko Udaleko idazkaritza lanpostuan diharduen, zerbitzu eginkizunetan, eginkizunak metaturik Aiarako Udaleko idazkaritzakoak ere betetzeko.

Bigarrena. Izendapen honek ondorioak izango ditu 2018ko apirilaren 27tik gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioa izendatuz lanpostu hori bete arte, hargatik eragotzi gabe erabakia aurreko edozein unetan baliogabetzea edo bera kargutik kentzea horretarako legezko kausaren bat izanez gero.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Trapagaraneko eta Aiarako udalei eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 8a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ